

Berrigara




Hirugarren mailara!

MARKIEGI
autoak

Biga 1 (S. Lorentzo Industri Poligonoa)
BERGARA

Telefonoa 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76



MULTIPLA FIAT



ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN ALDEKO APOSTUA

ERRENTA SEGURUA



HEZIBIDE
Hezkuntza Taldea

ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri
honako ikasketak egiteko

1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean
garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak
injinerutzarako konbalidatuta.

2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIDIA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIDIA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOIKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

Kontakturako
pertsonak



ALMEN
IKASTOLA

Josebe
Murumendaraz 943 71 49 07

ARRASATEKO
IKASTOLA

San F. Xabier Margari
Gorrotxategi 943 79 64 79

San Viator Idoia Urrutia 943 71 24 90





Zertifikatu madarikatua

Andres Osa "Sakona" / Irakaslea

Ikasturtea amaitzeaz dago. Ikasleen buruak eta gogoak aski aseturik. Ia gogait eginda. Ezin sosegatu. Irakasleen egoera ere paretsua izaten da. Urduritasuna eta nekea nagusitzen dira. Halere, oporretarako egun gutxi falta direla eta, animoak elkarriz emanaz daramaten zama aritzen da.

Baina aurten arazo berri bat sortu da eta ez nolana hikoia. DBH edo Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzen dute erreformaren lehen taldeek. 4. maila amaitu eta zer, hori da galdera.

Adin horretako neska-mutikoekin injustizi handi bat egiteko arriskua dago. Gordintasun guztiarekin plazaratu behar da sortu den egoera berria, berria bezain latza eta gogorra.

DBHko ikasketak amaitu eta kikili kokolo, suspentsoren bat edo gehiago dutenekin zer egin behar da? Bertan segi aprobatau arte beste urte bat edo bi? Aukera dute, legeak horrela dio. Baina, klaustrofobia itzala izan, ia ia gorrotatzerainokoa eta hor jarraitu behar al dute? Zertarako, ezer gutxi aurreratzeko eta datozenak, ondorengoak izorratze-

ko? Eta, ikastetxetik irtetzea erabakitzen bada, normala den bezala, zein titulo eman behar zaie modu horretako ikasleei? Zertifikatua? Graduatua?

Erreformak alde on asko izango ditu baina puntu honetan injustizia beldurgarriak egiteko bidea jarri du, lehengo sisteman ez zegoena. Zertifikatua ematen bada, ez du aukerarik Formakuntza Profesionalean ikasketarik egiteko. Ezta lanean hasteko ere, gaur egun denei Graduatua eskatzen baitzaie. Eta galdera da, pertsona guztiek ez al dute oinarrizko eskubidea lana izateko? Praktikan Zertifikatua emanaz ateak isten zaizkie.

"Lehen 14 urtekin jasotzen zuten graduatua eta orain, bi urte gehiago eginda, ez al dute Oinarrizko Heziketa Orokorra gainditzeko adina ikasi?"

Lehengo sisteman, OHO amaitzen zutenean, 14 urterekin, suspentsoak ziztutenei zertifikatua ematen zitzaien. Horrekin aukera zuten Eskola Profesionalera joateko. Ofizio bat ikasi eta gizar-tean naturalki txertatu. Orain, ostera, ez.

Eta galdera hau da, lehen 14 urtekin jasotzen zuten graduatua eta orain, bi urte gehiago eginda, ez al dute Oinarrizko Heziketa Orokorra gainditzeko adina ikasi?

Bihotz gogorak, zorrozkeria. Serietatearen izenean, gazte jendeari bizitzarako ateak itxi, bide bazterrean laga, gaizkile bihurtzeko bideak zabaldu, baztarretan negarra sortu, hitz batez, kalamidade guztiak bidean jartzeko arriskuan gaude.

Honen aurrean, irakaslegoaren erantzukizuna da legeak kontenplatu ez duena, zentzunez, bihotz zabala izanik, arrazoizko bideak erabiliz behar gehien duten gaztetxo jendeari bizitzan aurrera jo dezaten aukerak ematea eta epaile "zorrotz" eta zitela ez bihurtzea. Horixe da bidea. **B**

■ barruan



Andoitz Gallastegi

Waterpolo jokalaria

"Waterpoloak jarraitzaile gutxi ditu Bergaran; gainera, Oñatin jokatzeko dugu"

21.



Enrique Nieto

BKEko futbol entrenatzailea

"Orain dela bi urtetik ez dugu galdu etxean eta zapatuan ere ez dugu galduko"

22.



Tzeitel Martin

Udal Musika Bandakoa

"Etxean egungo musika entzuten dot. Kirolian, Realekua naiz; jokalaria onena Gomez da"

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1909. Maiatzaren 21ean Victorio Unamuno Ibarzabal futbolaria, Bergarak eman duen onenetakoa, jaio zen. 1924. urtean Bergarako Aurrera taldean jokatzen hasi zen eta 1928an Alavesera joan zen. Hurrengo urtean, Bilboko Athletic-ek fitxatu zuen eta bertan jardun zuen 6 urtez, talde horretan bai kopa eta bai liga irabazi zituelarik. 1933-34 denboraldian, Athletic-ek Betisi laga zion Unamuno eta han ere ligako txapelkun izan zen. Bi urte egin ondoren, berriz ere Bilbora itzuli, 41-42 denboraldira arte.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

843. Maiatzaren 24an Abderraman II.a Cordobatik Nafarroaruntz abiatu zen; Iñigo Aritza ihes eginik bizirik aterako da mairuen kontrako borrokatik.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 21

17-21-33-35-41-42 (osag.8/itz.2)

Astelehena 24

8-14-15-27-30-35 (osag.34/itz.0)

Martitzena 25

2-6-8-17-26-32 (osag.13/itz.9)

Eguaztena 26

20-22-25-29-31-34 (osag.48/itz.6)

PRIMITIVA

Zapatua 22

3-8-20-36-45-49 (osag.47/itz.1)

Domeka 23 Saritzarra

23-34-35-36-37-41 (osag.10/itz.5)

ONCE

Eguakitza 21: 39.249 (109 seriea)

Astelehena 24: 70.173

Martitzena 25: 23.994

Eguaztena 26: 41.480

BESTE BATZUK

Euskal Presoak EHra. Saskia:


2.306. Irabazlea: Patxi Arreseigor.

Amnistiaren Aldeko

Batzordeak: 404

Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Zerua estalita agertuko zaigu asteburuan eta ekaitz arriskua izango da. Domekan hodeiak nagusituko dira eta euria iragarri da. Tenperaturak behera egingo du. Haizeak hegotik joko du zapatuan; domekan, mendebala nagusituko da.

Ilargiaren aldiak



Ilgora: maiatzak 22



Ilbete: maiatzak 30



Ilbehera: ekainak 7



Ilberri: ekainak 13

Eguzkia

Domeka, maiatzak 30



Sortu: 06:50



Gorde: 21:39

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

| | max. °C | min. °C | euria l/m ² |
|----------------------|---------|---------|------------------------|
| Eguaztena 19 | 16 | 10 | 3,6 |
| Eguena 20 | 16 | 11 | 9,8 |
| Eguakitza 21 | 16 | 11 | 0,8 |
| Zapatua 22 | 19 | 11 | - |
| Domeka 23 | 18 | 11 | - |
| Astelehena 24 | 25 | 10 | - |
| Martitzena 25 | 24 | 14 | - |
| Eguaztena 26 | 32 | 11 | - |


bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Artzeak euki

Oinaririk gabe kexatu, arrazoirik gabe minduta egon.

- Berak euki zittuan akzidentian kulpa guztiak da oindio be artzeak dauzka.



hamaika ikusteko jaio ginen!

Paparaziei aurre egiteko erremedioa

Pennsylvaniako Natrona Heights herrian bizi den Joseph Resnick-ek txapel mota bitxia aurkeztu du: jende ospetsua argazkilarien kameretatik babestekoa. Txapelak, flashen argien eragina jasotzen duen mekanismo elektroniko berezia du. Une horretan, argi sorta indartsua kliskatzen da txapelaren aurrealdean dagoen fokotik eta bat-bateko argazkia belatuta geratzen da.

Farmaziak

Eguakitza 28:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 29:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Domeka 30:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Astelehena 31:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Martitzena 1:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Eguaztena 2:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguena 3:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 30: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

| SOS deiak | 112 |
|-----------------------|--------------|
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdia | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |

GARRAIOAK

| | |
|-----------|--------------|
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

UDALA

| | |
|---------------------|--------------|
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |

BESTELAKOAK

| | |
|--------------------|--------------|
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuaren Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

zorion agurrak



Nekane Muñoz
Maiatzaren 24an
5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Amaia Santamaria
26an 7 urte.
Urte askotarako!
Ander eta Mireia.



Maite Blanco
Maiatzaren 24an
20 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iker Alvarez
Maiatzaren 21ean
2 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak
eta arrea.



Antxon Ugalde
Maiatzaren 21ean
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Judith Alzola
Maiatzaren 24an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Karme eta Beñat.



Jose Zafra
Maiatzaren 21ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Emaztea eta alabak.



Unai Colinas
Maiatzaren 29an
27 urte. Urte askota-
rako! Gurasoak
eta arrea.



Aitor Uribesalgo
Maiatzaren 26an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Karme eta Beñat.



Irantzu Lizarralde
Maiatzaren 27an
17 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Gutierrez
Maiatzaren 21ean
urtebetete. Urte askota-
rako! Gurasoak
eta anaia Aitzol.



Iker Arazonaga
Maiatzaren 26an
11 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak,
Iker eta losu.



Amaia Goiti
Maiatzaren 27an
31 urte.
Urte askotarako!
Eider eta Ibon.



Antxon Esnaola
Maiatzaren 27an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Malen Gallastegi
Maiatzaren 31n
5 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ana Belen Morcillo
Maiatzaren 28n
22 urte. Urte askota-
rako! Familiakoak.



Garikoitz Moreno
Maiatzaren 25ean
5 urte.
Urte askotarako!
Aitaxo eta amatxo.



Mikel Aristi
Maiatzaren 28an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Ildelfonso Narvaez
Maiatzaren 26an
42 urte. Urte askota-
rako! Emaztea eta
seme-alabak.



Ane Zangitu
Ekainaren 1ean
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Gaizka Urzelai
Maiatzaren 25ean
7 urte. Urte askota-
rako! Aitaxo,
amatxo eta Danel.



Danel Urzelai
Maiatzaren 31n
4 urte. Urte askota-
rako! Aitaxo,
amatxo eta Gaizka.



Ane Larrañaga
Maiatzaren 24an
14 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Paula Aranzabal
Maiatzaren 26an
6 urte.
Urte askotarako!
Izebak.



Oier Aperribai
Ekainaren 3an
8 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Haizea Iñarra
Maiatzaren 21ean
5 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Ana Belen Contreras
Maiatzaren 30ean
25 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak.



Jon Iturbe
Maiatzaren 27an
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Garazi Aranzabal
Maiatzaren 26an
10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Alex Arteaga
Maiatzaren 25ean
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Oier Ugalde
Maiatzaren 25ean
3 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Olatz.



Laura Frias
Maiatzaren 30ean
4 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak eta
Nekane.



Maialen Belastegi
Maiatzaren 24an
4 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak eta
lehengusuak.



Begoña Aranzabal
22an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak eta batez
ere ilobak.



Nagore Igarza
Maiatzaren 27an
5 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak eta
lehengusuak.



Itziar Iturbe
Ekainaren 3an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Auskalo nor...

URTEURRENA

Maximo Gallastegi Gallastegi

Lehen urteurreneko meza
domekan, maiatzak 30,
goizeko 11:00etan, Angiozarko
San Migel Goiaingeruaren elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

Datorren asteko alean
EKAINAREN 4a eta 10a
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko dira.

■ jaiotakoak

BERGARA

Joseba Perez Alberdi

Maiatzak 15

ANTZUOLA

Yerai Gomez Sanchez

Maiatzak 10

Manex Balerdi Iparragirre

Maiatzak 19

■ hildakoak

BERGARA

Miguel Herzog Mengual

Maiatzak 22, 77 urte

MUSIKA

► **Oximoron eta Malestar** taldeak gaur, eguakitz, Jamen 22:00etan. Zapatuan, **Koma** taldea 22:00etan.

► **Eskola arteko abesbatzen topaketa** bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian. Goiz eta arratsaldeko saioak izango dira.

► **Igelaren banda** eguenean, hilak 3, 22:00etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

ERAKUSKETAK

► **Bergarako Orfeoiaren 75. urteurreneko erakusketak** Udaletzeko Pleno aretoan domekara arte.

► **Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak** Kultur Etxean domekara arte.

LEHIAKETAK

► **Kirol argazkien IX. Lehiaketa.** Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak Udaleko Kirol Zerbitzuan jasoko dira ekainaren 23ra arte. Kategorია bakoitzeko onenentzat sariak izango dira. Argibide gehiago: 943 76 30 90 (Benito).

► **Aramaioko Sagitario Saria,** bidaiari haundien literatura lehiaketa. Euskara eta gaztelarazko modalitateak bereiztuko dira eta kategoría bako-

ERAKUSKETA


Ivan Del Camporen argazkiak

Non: Nahikari tabernan
Noiz: maiatzaren 31ra arte

Iban Del Campo 28 urteko kazetari arrasatearraren "Ametsetan esnatuta" izenburuko argazki erakusketa ikus daiteke egunotan Nahikari tabernan. Leioako Faktatean Informazio Zientzietan lizentziatu ondoren, Del Campok kazetaritzako doktoretza egiteko beka bat eskuratu eta Parisera joan zen 1995-96 ikasturtean. Hala ere, zinema eta argazkigintza ikasketak egin zituen bertan eta orain, sasoi hartan ateratako argazkiak aurkezten dizkigu. Zuribeltzean eta koloretan egindako argazkiak dira, 20 bat guztira. Egilearen hitzetan, "kalean, ia-ia boteprotoan ateratako argazkiak dira, teknika gehiegi landu gabe. Kalean aurkitutako "istorioak" jaso nahi izan ditut eta egia esan argazkia errebelatu arte ez nekien zer aurkituko nuen". Erakusketara hurbiltzen direnek erretratuak, moda desfile batean aterarako argazkiak, jazz emanaldi batekoak edo Marche aux puces delakoan egindako erretratuak ikusi ahal izango dituzte. Erakusketaren izenburuari buruz zera diosku; "oroitzapenen bidez ametsak gerturatzen dira,

amets egiteko aukera dago eta argazkiekin ere hori gertatzen da".

Arrasateko ASA argazki elkarteak ki-dea da Iban orain dela lau urtetik eta gaur egun Artez aldizkarian ari da lanean. Kazetaritza ofizioan idaztea eta argazkiak ateratzea tokatu zaio eta, bere iritziz, "gauza bati buruz zerbait esateko osagarriak dira testua eta argazkiak, eta bietan ere gustora ibiltzen banaiz ere, beharbada argazkigintzan gustorago".



Ivan Del Campok erakusten duen argazkietako bat.

tzeko kontaketa onenak 120 mila pezetako saria eskuratuko du. Argibideak: 945 44 50 16.

► **Soraluzeko kaleko VII. margo lehiaketa** domekan. Izen-ematea domekan bertan, Soraluzeko Udaletxean, 9:00etatik 10:00etara.

IKASTAROAK

► **Islada** bideo tailerrak antolatutako **bideo sarrera ikastaroa** ekainaren 15etik uztailaren 15era bitartean, astelehen, martitzen eta eguenetan 17:00etatik 20:00etara Kultur

Etxean. Plaza mugatuak. Argibideak: 943 77 91 58.

DEIAK

► **Kanpoko igerilekuak** eguzkia hartzeko zabalik daude, goizez eta arratsaldez.

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
☎ 943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

► **Jardunen urteko Batzar Orokorra** izango da datorren egunean, ekainak 3, arratsaldeko 7etan Kartzela Zaharrean. 1998an zehar egindako jardueren balorazioa eta iazko diru kontuen azalpena emango da; horrez gain, urte honetarako egitasmoa eta aurrekontua aztertu eta onartuko dira. Bestalde, Zuzendaritza Batzordea berriztuko da.

► **San Joxepe. Galizia bisitatzeko bost eguneko bidaia** izango da ekainaren 15ean (33.500 pezeta). Argibideak eta izen-ematea 943 76 21 40 zenbakian.

► **EAJk eta EAK** bulegoa zabaldu dute Batzokian eta Alkartetxean botoa korreoaz eman nahi dutenentzat. Batzokiko ordutegia: astegunetan 19:00etatik 21:00etara eta zapatuan, 11:30etatik 13:30etara. Alkartetxekoa: 17:00etatik 19:30etara astegunetan eta 11:00etatik 12:30etara zapatu goizean.

► **Ehk** korreoaz botoa eman dutenentzat bulegoa zabaldu du Irizarreko lokalean. Bestalde, eguakitzean kartelak pegatze ekitaldia egingo du eta zapatuan bizikleta martxa herrian zehar, 19:00etan.

► **Udalak** jakinarazi nahi du ibilgailuen gaineko zergaren kobrantzarako borondatezko epea astelehenera arte izango dela zabalik.

► **Brasilgo Canudos** herria-

ren aldeko jaialdia bihar, zapatua, 18:00etan Antzuolako zine aretoan. Antzuolako Ikastolak antolatuta.

► **Mendi irteera** ekainaren 19an eta 20an Guadarramara, Alpino Gorlak eta Pol-Polek antolatuta. Txartelak Pol-Poleko bulegoan salgai, ekainaren 10era arte. 943 76 48 51.

► **Ibilaldia 99** ekainaren 6an Elorri. Autobus txartelak (700 pezeta) Jardunen edo Aranzadi Ikastolan.

► **Bruce Springsteenk** ekainaren 5ean Zaragozan emango duen kontzertura joateko autobusa antolatu du Jam-ek. Autobusa eta sarrera 8.500 pezetan (8.000 Jam-eko bazkideentzat).

► **San Joxeperen mendi irteera** ekainaren 2an. Ibilbidea: Bergara-Madaixalzarraitz. Irteera goizeko 8etan Beheko Estaziotik. 943 76 21 40.

► **Udalak** jakinarazi nahi du trasteak biltzeko kamioia hileko lehen eguaztenean pasatzen dela. Beraz, trasteak martitzen gauean laga beharko dira betiko tokietan.

KINTADAK

► **1958an jaiotako enafaria** ekainaren 12an, 21:30etan Antxonin jatetxean. Izen-ematea Antxonin edo Intxortan.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

La vida es bella

Eguakitz: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Velvet goldmine

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

Soldado de fortuna

Eguakitz: 21:30.

Aun se lo que hicisteis el ultimo verano

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

Eguena: 19:00, 21:30.

LA VIDA ES BELLA

Zuzendaria: Roberto Benigni.

Aktoreak: Roberto Benigni,

Nicoleta Braschi.

Besteak beste, atzerritar filmarik onenak eta aktore onenaren Oscarren jaso dituen filma. Komedia eta drama tartekatuz, *Guido* eta *Dora* bikotearen istorioa kontatzen zaigu. Faszistak gobernura heldzerakoan gauzak erabat okertuko zaizkie. Kontzentrazio zelai batera bidaliko dituzte eta *Guidok* imaginazioa landu beharko du bere familiaren bizitza salbatzeko.



VELVET GOLDMINE

Zuzendaria: Todd Haynes.

Aktoreak: Ewan McGregor,

Jonathan Rhys, Christian Bale.

1971n *glam rock* musika estiloa indarrean zegoen. *Brian Slide* mugimendu horretako izarretako bat dugu eta bere heriotzaren planta egin ondoren, jarraitzaileek baztertu egingo dute. Urte batzuk berandua-gozetari batek idolo honi buruzko gorabeherak ikerzteari ekingo dio...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Aprobetxatu oporrak
GIDA BAIMENA
ateratzeko

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Izena ematean
%10EKO BEHERAPENA
Gazte Txartelarekin

Tf. 943 76 16 63

ARANZADI IKASTOLAN

BATXILERGORAKO MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK


Ekainaren 1etik 9ra arte

Goizez: 8:30-13:00


Arratsaldez: 15:00-18:00

Batxilergo modalitateak:

- Osasun eta natur zientziak
- Gizarte etea giza zientziak



ARANZADI IKASTOLA



PARTAIDE
Ikastolak

San Martin Plaza 4

Tf: 943 76 90 71

Faxa: 943 76 91 77

E-mail: bergara@ikastola.net

Erabateko erantzuna Bergaran 35 orduko lan astearen aldeko grebak

Sindikatuak 35 orduko lan astea aldarrikatzeko joan zen eguakitzera egindako greba orokorrerako deiak erabateko erantzuna izan zuen Bergaran.



Erabateko erantzuna izan zuen Bergaran grebarako deiak.

Industria alorrean, esan daiteke lantegi guztiek itxi egin zutela. Bestalde, Udaleko langileek ere greba egin zuten eta ikastetxe guztiak itxita izan ziren.

Horrez gain, egun horretan Bergarako jaiak hasten zirela kontuan izanda, dendak arratsaldez eta tabernak iluntzeko 8etan zabaltzea proposatu zioten Bedelkarri grebarako deia egin zuten sindikatu eta indar politikoek. Kontu honen inguruan hika mikak izan ziren gre-

barako deia egin zutenen eta dendarien artean. Esan behar da, bestalde, eguakitz goizean piketeak izan zirela. Banketxe batzuk normal zabaldu zituzten ateak eta baita denda apur batzuk

ere; beste batzuk, osterara, zabaldu nahi izan zuten baina piketeak zirela eta, arratsaldera arte ez zituzten ateak zabaldu. Edozein modutan, denda gehienek arratsaldez bakarrik zabaldu zu-

ten, baina batzuk egun guztian zehar itxita egon ziren.

Eguerdiko 12etan manifestazio jendetsua izan zen herriko kaleetatik zehar. Bailara mailako manifestazioa zenez, inguruko herrietatik ere jende asko etorri zen. Manifestaziorako deia ELA, LAB, ESK eta STEE-EILAS sindikatuak eta EH, Ezker Batua eta Zutik taldeek egin zuten.

Bestalde, iluntzeko zortzietan, Bitorianatxo jaitsi eta jaiei hasiera eman zitzaizkion, normaltasuna iritsi zen eta herriko kaleak jendez bete ziren. Halere, txoznak gauerdira arte ez zituzten zabaldu eta rock kontzertua gaueko 12ak jota hasi zen eta ohizkoa baino beranduago amaitu zen.

Asfaltu berria, azkenean, Bolu aldean

Aranerreka, Koldo Eleizalde eta Iraburu kaleak asfaltatzen aritu ziren jaien aurreko egunetan. Hilabete-etan egoera tamalgarrian izan ondoren, azkenean, konpondu dituzte kaleok, auzokoen pozerako. Bestalde, kanposantu ondoko aparkalekuan ere bota zu-

ten asfaltua. Jaietan barrakak ipini dituzte bertan, baina datorren astean kenduko dituzte eta, ondoren, aparkalekua egokituko da. Legealdi honetan izango ez bada ere, Ibarra kaleko zorua konpontzeko asmoa du Udalak, hura ere oso egoera kaskarrean dago eta.



Garnish
Bitxitegia
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

IGARO
✓ Kosmetika eta oparigaiak
✓ Eder gela
✓ Bio Solariuma
Barrenkala 35 Tf.: 943 76 17 27

Deco-Textil
ZANGITU
Etxerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.
Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 62



EHko hautagaien esanetan, legealdi honetan programa barik gobernatu dute EAJK, EAK eta PSE-EEK.

Hauteskundeetarako Herri Programa aurkeztu du EHk

Hainbat taldetan banatutako herritarrek osatu dute

Bergarako EHk udal hauteskundeetarako Herri Programa aurkeztu zuen joan zen astean. Hilabeteotan hainbat taldetan bildutako herritar askoren artean landutako programa dela esan zuten Jesus Mari Garitano alkategaiak eta Maider Larrañaga zerrendako bigarrenak. Ikuspegi ezkerriar eta abertzaletan oinarritutako programa, sentsibilitate eta pentsamolde ezberdinak kontuan hartuz egindakoa

dela esan zuten. "Haize berriak-Herritarron ordua" izango da EHren hauteskundeetako lelo nagusia.

Programari dagokionez, Gobernu Batzordean indar politiko guztiak egon behar dira EHren ustez, eta politikoaren soldatak berraztertu beharko lirake. Bestalde, hiru batzorde berri sortzea proposatzen du: Ingurugiroa, Pertsonala eta Presoak. Komertzio txiki eta herriko ostalaritzaren aldeko apus-

tua egiten du eta hutsik dauden etxebizitzetara irtenbidea ematea proposatzen du. Baliabiderik ez duten familientzat gutxieneko soldata ezartzea proposatzen du eta Euskal Eskola Publikoaren aldeko apostua egiten du. Gazteek autogestionatutako gune publiko bat eratzearen alde agertzen da, eta udal liburategia handitu eta berregituratzea proposatzen du. Kirol arloan, trenbide zaharrean bidegorria egin nahi du.

Autopistaren lehen harria ipini zuen Lehendakariak atzo

Eibar-Gasteiz autopistaren lehen harria jarri zuten eguenean Basalgon, Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak, Roman Sudupe Gipuzkoako Aldun Nagusiak, Alvaro Amann eta Antton Jaime, Garraio eta Errepideetako Jaurlaritzako eta Diputazioko arduradunek eta Victoriano Gallastegi alkateak.

Presoen aldeko itxialdiak

Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak eta Euskal Presoak Euskal Herrira taldeak, eta Bergarara Plataformak, presoen aldeko itxialdiak antolatu dituzte, gaur, eguakitzan, hasi eta datozen lau asteburu kaeretan. Asteburu honetan eta ekainaren 4, 5, 6, 18, 19, 20, 25, 26 eta 27an izango dira. Sarreak, eguakitzetan, enkarrelada ostean egingo dira, iluntzeko 20:30ak aldean eta itereak, domeketan 19:00ak aldera. Itxialdiak Udaletxean egingo dira. Parte hartu nahi dutenek, Arranon eman dezakete izena.



AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrea 13 behea ☎ 943 76 55 00

ileapaindegia
eder gela

—disdira—

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55


Animaliei buruzko arautegiaren laburpena etxez etxe banatuko dute

Bergarako udalerrian animaliak edukitzea arautuko duen udal ordenantzaren laburpena eta konpainiako animaliei buruzko triptiko bat banatuko du Bergarako Udalak etxez etxe.

Kanpaina honen helburua gizakien eta animalien arteko elkarbizitza hobetzea da. Orritxoetan hainbat aholku ematen dira konpainiako animaliak dituztenen arteko eta gainontzeko herritarren arteko elkarbizitza ahalik eta atsegina izan dadin. "Denok apurtxo bat saiatur gero, animalia zaleek euren animaliarekin gozatu ahal izango dute, gainontzeko herritarren artean


Txakurrak bide publikoan

Animalia beti ibili beharko da jabearekin edo bere ardurua duen beste baten batekin, eta ahal dela lepozarekin eta uhatsarekin lotuta. Txakurra arrikutsua dela ikusten bada, muturrekoa ere ipini egin beharko zaio. Horrela jokatuz gero, oisetzok ez dira belduriko, baizik eta borrokarik ez da egongo, kobesek ez dute boturik zapalduko eta ez da boturik biliko zaborra jasotzeko guneetan dauden zabor-poltak konitzen. Gogoratu animalien jabeak dela boturik beste pertsonen zain beste ondasunei eragidako kalteen erantzule bakarra, eta komenigarria dela horriako kalteak asagurtzea edukitzea aseguru-poltza egoki baten bidez. Animaliek hirigunean ibiltzen jakin dezan, komenigarritzat jotzen da animaliak gutxienezko trabakuntza izatea, horrela jabeak erraz menpera dezan bakarra eguneroko egoera guztietan.




Aske dabilzan animaliak

Ez utzi zure konpainiako animalia kalean bakarrik ibiltzen inola kontrolatuta, nahiz eta eberra bakarrik bueltatzen jakin. Horrelakotan, abandonatutako animaliazat jo daiteke, eta horretaz aparte, heinbat eraso sor ditzake bide publikoan: gorroteak lagatzeko, zabor-poltak apurtzea, kolore baten zapaltzea, besteak beste ziklazio isurpauak eragitea, beste txakur batzuei zain pertsonen eraso egitea eta abar. Izan zaillez arduratsua zure animaliarekin, bai eta zure auzokideekin ere.



Aske dabilzan animalien elikadura

Ahal dela ez eman jaten aske dabilzan animaliei, nahiz eta pena hartu eta haletaz gidatu. Jaten emanez gero, animalia horien ugalketa errazten dugu eta kontrolatu gabeko hainbat infekzio sorgune (razterria, hongoa, toxoplasmosia eta abar) mantentzen ditugu. Animalia horiek ez dute osasun kontrolik eta gaiztosunak kutsatu ahal dituzte pertsonen zain gainontzeko animaliei. Pertsonen jeneria emanez gero, normalean baino kume gehiago izaten dituzte, eta gainera, ematen diegun janariaren artean gustukoena aukeratzeko ikasten dute hondakinak bertan behera utzita. Hondakin horiek arratzen janari bihurtzen dira, eta horren ondorioz, animaliek ere ugaltu egiten dira, gaitzotasunen eragile berrak sortuz.



Arautegiaren laburpena eta gaiari buruzko triptikoa banatuko ditu Udalak.

inongo trabarik egin gabe" irakur daiteke triptikoaren sarreran.

Kanpaina joan zen astean aurkeztu zuten Udaletxean Victoriano Gallastegi al-


kateak, Alvaro Esparza Lan eta Gizarte Ongizate zinegotziak, Alfonso Alonso Udaltzainburuak eta Ines Etxeberria Gizarte Ongizateko teknikariak. Guztiek azpimarratu nahi izan zuten arauaren helburua ez dela animaliak dituztenak zigortzea, arazo honen inguruan herritarrek kontzientziaztea baizik. Gainera, arautegia egiteko orduan, gai horrekin zerikusia duten hainbat herritarrek parte hartu dute la azpimarratu zuten.

Bestalde, txakurrak trebatzeko ikastaroa antolatuko du Udalak udan. 10 txakurrendako tokia izango da bakarrik. Ikastaroa astelehen, eguazten eta eguakitz iluntzetan emango da.


Aparkalekuak egiteko hitzarmena

Bergarako Udalak eta Ibarra aldean eraikitzen ari diren etxeen sustatzaileek, Ortuibar eta Mauricio Arregi eraikuntza enpresek, hitzarmena sinatu zuten joan zen astean Errege Mintegiko patioaren ondoko etxeen azpian 63 autorentzako garajeak eraikitzeko. Udalak 50 milioi pezeta ordaindu beharko ditu. Horietatik 13 milioi dirutan eta

gainontzekoa Udalarri dagokion lurren truke. Victoria Gallastegi alkateak adierazi zuenez, garajeak urtebeteko epean bukatuta egongo dira eta ordaindu egin beharko da erabiltzeagatik, nahiz eta prezioa merkea izan. Aparkalekuen arazoa konpontzeko, Udaletik hauen moduko beste ekimen batzuk bultzatuko direla esan zuen Alkateak.



Udaletxean sinatu zen garaje publikoak eraikitzeko hitzarmena.



Matxiategi
Elekragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

BUNKY

ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar

Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

Berrigara

369 zenbakia.
1999ko maiatzaren 28a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Eneko Azkarate,
Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
Maketazioa: Inaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkorobereizibar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.
Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugaldel, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:

Juan Martin Elxepuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo

Banaketa: Txantxangorri taldea.

Inprimategia: Gertu Koop,
Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkiak: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

TXOZNETAN JAUSITAKO LAGUNARI BURUZ

Martitzen goizaldean Bideberrin errekarra jausitako R.L.C.ren lagunek gure ezadostasuna adierazi nahi dugu. Erantzak izan zuen jarrera pasiboagatik; eta aldi berean larrialdietako zerbitzuen moteltasuna jakitera eman nahi dugu, izan ere 30 minutu pasatu ziren istripua gertatu zen lekura iristen eta.

Idatzi honen bidez, Udalari eskatu nahi diogu har ditzala behar diren neurriak halako kasurik gerta ez dadin, Larrialdietako Zerbitzuak bertan egon daitezela herriko jaietan, eta erreka alderako horma handitu edo segurtasun hesi batzuk jar ditzatela, halako istripurik gerta ez dadin.

Azkenik, txoznak tokiz aldatzea ere eskatzen dugu.

Begirunez.

R.C.L.ren lagunak

AURTEN, URTERO BEZALA, SAN ANTONIOKO JAIK!!

Aurten ere, San Antonioko jaiak han egongo dira ekainaren 12an, gu guztiok itxoinen. Festako komisioak espero du egiten ari diren obrak ordurako bukatuta egotea, Algodonera-ko zubiko zuloa itxita, behintzat.

Esperantza honekin gaude, alkateak berak esan duelako bere eskuetan dagoen guztia egingo duela hori horrela izan dadin. Urtero bezala, han izango da gure txokolatada tradizionala, betiko danborrada, musika-jaialdia, joku asko umeentzako eta, nola ez!, iaz bezalako zezen txikiak. Honez aparte, hainbat eta hainbat sorpresa egongo dira egun horretan elkartuko garen guztiontzat.

Lerro hauek aprobeztatzen ditugu esateko danborradarako entsaioak maiatzaren 27an hasiko direla arratsaldeko 7etan txikienez, eta segidan, 8ak aldera, helduentzako. Betiko lekuan izango dira, Mintegi kalean, Hazienda bulegoaren ondoan.

Soberan dago esatea, animatzen zaituztegu zuei guztiei parte hartzeko danborradan, eta baita festetako gainontzeko ekitaldietan ere. Diberetsioa ziurtatzen dugu. Ezer gehiago esateke, agurtzen zaituztegu.

San Antonio jaietako komisioa

PRESOEN ESKUBIDEAK

Datozen asteburuetarako Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Senideak-ek eta Bergarara


Plataformak itxialdiak eta barraualdiak antolatuta dituzte. Egoera politikoa aldatu baldin bada ere, Espainiako Gobernuak euskal presoekiko duen jarrera eta politikak bere horretan dirau; hots, gutxienezko eskubideak ere ez dira betetzen.

Euskara ikasteari dagokionez, betiko funtzionariaren aldatzearen arabera dela esan daiteke: gartzela batzuetan ez dute fotokopiarik ezta audiozintarik onartzen, beste batzuetan eskaera behin aurkeztu denetik hilabeteak behar dira ditxosozko baimena lortzeko... Baina, salbuespenik gabe, presoek ez dute irakasle baten laguntza izateko aukerarik, ez tutoretza-bisitari, ezta telefonozkoa ere. Bere kabuz egiten duenak ez du inolako onarpen ofizialik. Badute, hori bai, bi azterketatara aurkezteko aukera. Horiek prestatzeko biderik ez ordea.

Presoen gutxieneko esku-bideak bermatzen ez direlako, euskara ikasi nahi dutenek egin ahal izateko, eta Euskal Herrikoak direlako Akulu-AEK Euskaltegiak Espainiar Gobernuari bere legea bete dezan eskatzen dio, eta aldi berean Bergarako herritarro arestian aipatutako ekimenetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi die.

Bergarako Akulu-AEK

tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Ekaiñaren 13ko elekziñuak datozela eta, zerbaitetarako balio izaten dabe kanpaiñak?



Juanra Perez

Egia esan, apolitikoa ez, baina nahiko egiten dut pako horretan. Ez dakit ekaiñaren 13an botoa emango dudana, baina hauteskunde kanpaina ez dut jarraitzen.



Tomas Ormaetxea

Ez dut uste kanpainak eraginik duenik. Botoematek erabakita izaten dute botoa aurrez. Ni ere ideia fijoetako naiz eta argi daukat ekainean nori eman botoa.



Nerea Arietaleanizbeaskoa

Alderdi batekoak edo beste batekoak egon, politikoez gauza gutxi egiten dute herritarrendako. Hobe kanpainetako dirua enplegua sortzeko bideratzea...



Roberto Oriundo

Proiektu berriak presentatzeko baliogarririk die. Lehen proiektu batzuk konfrontaziño barruan sartuta zeren eta orain kolaboraziño maillan egiñak dare.



Maite Solaun

Niri gauza gutxi esaten didate, baina uste dut jende batengan eragina izango duela. Politikoez gauza asko prometitzen dituzte eta gutxi egin gero...



Mari Cruz Rodriguez

Egia esan, politikako gaiak ez ditut jarraitzen eta ekaiñaren 13an ziurrenik ez dut botoa emango. Ez dakit zer nolako eragina duen kanpainak.



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

BARRAKAK ETA APARKATZEKO TOKIA

Elena Egurenen delia jaso genuen aurreko astean. Barrakak kanposantu ondoan jarri dituztenez aurten, maiatzaren 17tik aurrera auzokoek ez zuten aparkatzerik Ibaiondo ibiltokiko aparkalekuan, debeku seinaleak jarri zituelako Udalak. ASPACE eskolako plazoletan dago aparkalekua eta bertan 40 bat kotxe aparkatzeko tokia dago.

Elenaren arabera, barrakeroek tokatzen ez zitzaizen terrenoa ere hartu zuten eta ezinezkoa zen inguruan aparkatzea. Kotxeendako toki barik eta karabanaz inguratuta ei zegoen Ibaiondo ibiltokia eta Udaleko arduradunei hurrengo urterako hori konpontzea eskatu nahi die.

■ ikuspuntua: **joseba lezeta**

Doping: onena izateko grina?

"Bere mugak gainditu nahia barnean darama gizakiak eta ez dio uko egiten legezkoak ez diren bitartekoak erabiltzeari. Gizarteko hainbat arlotan gertatzen da hori. Kirola, eta honen barruan txirindularitza ez da salbuespena. Nork ez du tranpa egin onena izaten ahalegintzeko? Lege batzuk jartzen dira, baina guztiok arrasto gainean ibiltzen gara, alde batera ala bestera eroriko". Doping-ari buruz ari den lagun baten hitzak di-



ra. Ez zaio arrazoirik falta, baina horrek ez du esan nahi doping-ari ateak zabaldu behar zaizkionik. Txirindularitza bidezkoak ez diren produktuak aspalditik erabiltzen dira. Horregatik sortu ziren doping-aren aurkako kontrolak. Baina azken urteotan kontrolak motz geratu dira. Oraingoz behintzat epo-a ez du ezerk detektatzen. Produktu honen erabilpena neurri batean murriztea lortu dute odol analisisiek, baina epo-a izkutatuta zegoen, Voet-en kotxeko maleteroa ireki zu-

ten arte. Frantziako Justiziak bide desegokia aukeratu du, baina ezin zaio ukatu kirolaren eta gizartearen aldeko borondate onarekin ari denik. Bidea gogorregia da txirindularientzat, eurek jarraitzen dute izaten kaltetu handienak, baina luzera euren osasuna izan daiteke onura gehien jasoko duena. Abusu asko egon delako.

Voet-ek esandako denak sinisten ditudan? Dena ez, baina asko bai. Bere jarrera ez da zintzoa, baina aspaldikoak dira txirindulari batek besteari zioena: "Hik pastila bat bakarrik hartzen duk? Tubo osoa hartu behar duk, motel, tubo osoa". Itxuraz, leiondaren atzean bazegoen egi zati bat... **B**

Berrigara 369, 1999ko maiatzaren 28a. **13**

■ asteko menua: **arin jatetxea** / antzuola

Zizak plantxan berakatz freskoen saltsarekin

OSAGAIK (4 lagunentzat)

- 200 gramo ziza
- berakatz freskoak, 24
- 100 gramo gurin
- Gatza
- Perrexila
- Oliba olioa birjina

PRESTAKETA

- Berakatzak garbitu, zurtoina eta zati berdeak banatu.
- Berakatz zati berdeak 60 gramo gurinekin eta ur apur batekin sutan ipini.
- Berakatz zurtoinak 30 gramo gurinekin bost minutuz plantxan salteatu.
- Egosi ditugun berakatz zati berdeak txinotik pasatu.
- Bestalde, perretxikoei zurtoina eta txapela banatu.
- Perretxikoen txapelak, gurin apur batekin, plantxan egin.
- Perretxikoen zurtoinak ere plantxan, piskat gorritu arte (bi minutu) egin.

MAHAIRA ATERATZEKO

- Plateraren oinarrian berakatz salta berdea ipini lehenengo.
- Erdi-erdian, perretxiko txapelak ipini.
- Perretxikoen txapelaren inguruan, berriz, hauen zurtoinak ipini.
- Eta alde batean, berakatz zurtoinak.
- Bukatzeko, gainetik perrexil zati txiki-txikiak bota.



IBON KEREJETA eta
MANOLO HERNANDEZ
Arin jatetxeak

■ adituen esanetan

Prebentzioa ezinbestekoa

ENRIKE TRIPALDI, *dentista*

Gure artean, zorionez, odontologiaren enfokea aldatzen ari da. Duela urte batzuk interbentziorako (haginak kentzeko askotan) joera handia zegoen eta gaur, berriz, Osakidetzak, eskolek edo odontologok eginiko lanari esker prebentzioari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio. Jendeak gehiago baloratzen du norberaren hortzeria mantentzea. Higiene egokia eta neurri prebentiboak hartzea ezinbestekoak dira.

Egunean, gutxienez, lau aldiz garbitu behar dira haginak hortz-eskuilarekin eta, hortzetako haria erabiltzekotan bi aldiz egitea gomendatzen da. Lotara joan aurreko garbiketa funtsezkoa da,

egunean garbiketetan laguntzen duten mekanismo fisiologikoak (txistua eta mingainaren, ezpainen eta masailen mugimenduak) gutxitu egiten direlako. Hortz-eskuila biguna egokiagoa da, gogorak esmalteari eta entziei afektatzen dielako. Bestalde, haginak ondo garbitzen ere ikasi egin behar da. Era berean, hemen daukagun ur fluoratua lagungarria da, esmaltean barneratu eta kariesen eta gaisotasun pedodontalaren agerpena saihesten duelako. Alkoholik gabeko kolutorioak ere ondo datoz. Azkenik, prebentzioa egiteko odontologoarengana sei hilabetero joatea ere komenigarria izaten da. **B**

■ bergarako gordailutik

200 GUDARIKO TALDEA Imanol Sorondo

Batzartuta daude Udaltxean hainbat herritar 1700. urteko azaroan; frantsesak Hondarribia, Donostia eta Pasaiako portua hartzera sartuko ote diren beldurra dago Gipuzkoan. Diotenez, prest omen daude Baionan 38-40.000 gudari, eta hiri honetako gaztelutik 3.000 lehergai ateratzen ikusi omen dituzte. Prest egotea erabaki dute batzarrean, eta horretarako Gipuzkoako

Aldundiak eskatutako 200 gudariako konpainia osatzea. Guda ohiturari jarraituz, izendatu dira agintedunak ohizko modura: herriko alkatea eta diruzaina, konpainiako guda buru eta alferrez; ondoren, Bergarako jesuiten Erretorea, kapellau; gero, kaboak, zirujaua, danbor eta xirula joleak; azkenik izendatu dira lehenengo deiari erantzunez joatekoak izango diren 200 arterako guztiak. Era berean, behar dituzten janari, arma, munizio eta diruak ere prestatzen hasi dira; diruak interesarekin ordaintzekotan hartuko dituzte. Ikusi dai-tekeenez, herri bakoitzaren ardura eta zeregina haundiak ziren. Gainera, herria nola zuzendu pentsatu behar zuten alkatea eta beste guztiak kanpoan zeuden bitartean.

Lehenengo deietan ezkongabeak joaten ziren; ondoren eta behar zenean, ezkonduak ere bai. XVII. mendean, Gipuzkoako Foruek ziotenez, probintzi honetakoek ez zuten gerrara hemengo mugetatik kanpora joan behar eta, hori borondatez, eta horrela nahi zutelako egiten zutenean, diru soldadak jaso behar zituzten aldez aurretik. Beste alde batetik, kanpoko gudari komisarioek, gure probintziko mugen barrenean sartu nahi bazuten bere konpainiekin, Gipuzkoako komisarioen eskuetan laga behar zituzten konpainia horiek. **B**




Ingurugiro Eskolaren saria

Aranzadi Ikastolako lehen hezkuntzako 6. mailako talde batek bigarren saria jaso du **Udalako Ingurugiro Eskolak bultzatutako "50 urte barru"** lehiaketan. "Zaborraren problematika aztertzen" kanpainaren barruan, Deba Garaiko 12 urteko ikasleen artean "50 urte barru..." lehiaketa egin da; ikasleek beraien herria hemendik 50 urtera nola imajinatzen duten islatu beharra zuten mural batean. Esan bezala, Aranzadikoak bigarren postuan sailkatu ziren. Argazkian, **Ander Amasorrain, Itxaso Arraiago, Xabier Azurmendi eta Eli Cabo** ikasleak jasotako sariekin eta **Gurutze Arregi** beraien tutorearen ondoan. Arbelean zintzilikaturik saritutako lana ikus daiteke. Zorionak!!

Arenaza Donibane Lohitzunen saritua

Fernando Arenaza margolari bergararra **Donibane Lohitzuneko III. Salon des Indépendants Lehiaketan saritu dute**. Guztira, 213 lan aurkeztu ziren eta horietatik epaimahaiak 115 aukeratu zituen (94 Iparraldeko artistenak eta beste 21 hegoaldekoenak). **Didier Dubarryk** eskuratu zuen sari nagusia, **Iñaki Zabala** azkoitiarrak epaimahaiaren saria jaso zuen eta **Arenazak,**

beriz, elkarte antolatzailearen saria jaso zuen, 2.000 libera eta diploma eskuratu. "Kapegi" izenburuko lanarekin Euskal Herriko egoera islatu nahi izan du, gatazkari giza aurpegi bat jarritz. Lehiaketa bereko lehen edizioan epaimahaiaren saria jaso zuen Arenazak duela bi urte.



Mariskada irabazi

Bergarara Plataformak maiatzaren 16an egindako zozketan **2.402 zenbakia** izan zen saritua. **Inaxio Azepeitia** boleto saridunaren jabeak argazkian ikus daitekeen **mariskada** ederra eskuratu zuen sari gisa. Baten batek Pazkuetan ederki asko jango zuen...

1949an jaiotakoak

Aurten **50 urte** egingo dituzten bergararrek bazkaria egin zuten joan zen maiatzaren 8an. Urteko kintadarik arrakastatsuen izaten da mende erdira heltzen direnena eta aurten beste horrenbeste gertatu zen. Guztira, **90 lagun** inguru bildu ziren eta giro ezinhobean igaro zuten eguna lagunartean. Herriko jatetxe batean bapoz bazkaldutako ondoren, **Iñaki Quintanillak alaitutako dantzaldia** izan zuten. Oraindik ere primerako sasoiak daudela erakutsi zuten... Zorionak!!



1999/2000 ikasturtea

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 ikasturte)

- ▲ Proiektu Mekanikoen Garapena
- ▲ Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- ▲ Industri Ekipoen Mantenimendua

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 ikasturte)

- ▲ Mekanizazioa



Makina Erremintaren Institutua
 San Roke auzoa 1
 20870 - Elgoibar
 Tf. 943 74 41 32
 E-posta: amaia@fmh.es

Bilera informatiboa: maiatzak 28, arratsaldeko 17:00etan

Aurreinskripzio epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne.



ALDATZE


Batxilergoa
(16-18 urte)

HASI ETA HEZI, GUREKIN

FAKULTATE, ESKOLA
 UNIBERTSITARIO eta
 2. mailako LANBIDE-HEZIKETA
 ZIKLO-etara sartzeko
 PRESTAKUNTZA IBILBIDE
 APROPOSAK

- * Jantoki zerbitzua
- * Neska-mutilei eskainia
- * Ekintza osagarriekin borobildua

Aldatze kalea 5 EIBAR ☎ 943 70 11 50 Faxa 943 70 13 04



kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxu Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Mariipi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 38. zenbakia. 1999ko maiatzaren 28a.

Haurren Dantzari Eguna domekan

Eskualdeko dantza taldeak Antzuolan arituko dira egun osoan

Dantzari Eguna ospatuko da datorren domekan Antzuolan. Goizean eta arratsaldean eskualdeko dantzariak kalerik kale arituko dira euren dantzak erakusten. Aurten ere, neska-mutikoak herri-tarrek hartuko dituzte etxeetan, bazkaltzeko orduan.

ARRATSALDEKO SAIOA

Bigarren saioa, arratsaldekoa, hain zuzen ere, 17:00etan hasiko dute. Hori ere Herriko plazan izango da eta herri bakoitzak dantza bana eskainiko du. Antzuolako Oinarin dantza taldeko neskek izan dira saio horretan. Hauek Villabue-

nako Te Vi dantza eskainiko dute, lehen aldiz herrian.

Horren ostean, dantza talde guztiek batera beste saio bat eskainiko dute eta oraindik dantzan egiten segi nahi duenak horretarako aukera izango du, erro-meria antolatuta da eta. ■

I az ez bezala, aurten ospatu egingo da Haurren Dantzari Eguna Antzuolan. Arrasate, Soraluze, Oñati, Aretxabaleta eta Eskoriatzako dantza taldeetako neska-mutikoak etorriko dira herrira. Noski, herriko Oinarin dantza taldeko dantzariak ere kanpotarrekin batera aterako dira.

Goizeko 10:00etan herriko txistulariak kalejiran aterako dira eguna alaitzen joateko eta 10:30etan, eskualdetik etorriko diren dantza taldeei ongietorria egingo zaie pilotalekuan. Horixe izango da hamarretakoa egiteko aukera, segidan auzoz auzo joango dira eta talde guztiak. Baina ez dira batera joango. Banatu egingo dira, batzuk plazatik gora eta beste batzuk plazatik behera. Hasiera ordua 11:15ak izango da.

EGUERDIKO SAIO NAGUSIA

Eguerdiko 12:30etan Herriko plazan elkartuko dira berriz ere talde guztiak eta saio nagusia eskainiko dute. Guztiek batera dantza batzuk eskainiko dituzte, bazkaltzera joan aurretik. Izan ere, etxeetan hartuko dituzte antzularrek eskualdeko dantzari txikiak. Hori dela eta, prest agertu diren guztiei 13:45etan pilotalekuan ager daitezela eskatu diete aurrez Oinarin dantza taldeko kideek.



Herriko jaietan Oinarineko dantzariak eskainitako dantza saioa.

■ ■ ■
150 dantzari txiki etorriko dira domekan
Antzuolara, Dantzari Txikien Egunean
■ ■ ■

Hiesari buruzko III. sentikortasun astea

Hies Ekimenak Hiesari buruzko sentikortasun astea antolatu du Antzuolan ekainaren bitik seira bitartean. Soo Bitxo komikiaren aurkezpenaren ostean

antolatu dituzten ekitaldi hauekin hiesaren inguruan dauden mamuak argitzea nahi dute antolatzaileek. Hori dela eta, eguaztenean (ekainak 2), kartel erakus-

keta irekiko dute udaletxeko areto nagusian. Honekin batera mahai informatiboa eta diapositiba emanaldia eskainiko dute, 19:00etatik 20:30etara. Herriko eskolan azken kurtsoan ari diren haurrek ere erakusketa horretara joango dira. Eguenerako (ekainak 3), hitzaldi-etzabaida antolatu dute 19:00etarako, udaletxean. "Pertsona seropositiboaren erregistroa zer da, zer eragiten du?" izenburupean, aspaldian horrenbeste hika-mika sortarazi dituen asmoari (seropositiboak zerrenda batzuetan izatea) helduko diote Hies Ekimeneko kideek. Eguakitzean (ekainak 4), Peter Horton zuzendariren "Que nada nos separe" filmea eskainiko dute zinetokian, 19:30etan. Kartel erakusketa domekara arte egongo da zabalik, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30etara asteburuan. Astegunetan, udaletxeko ordutegian.



1997an egindako Hiesaren gaineko hitzaldia.

MOTZIAN

PP UDAL HAUTESKUDEETAN

Alderdi Popularrak hautagai zerrenda aurkeztuko du Antzuolan ere ekainaren 13ko udal hauteskundeetan. Edorta Joxeba Gabilondo donostiarra aurkeztuko da alkatezarako.

ANOREXIA, BULIMIA ETA HEZURRAK

Eroskiren Kontsumo Aretoak bi hitzaldi antolatu ditu ekainaren 1 eta 2rako. Lehenengoak hezurretako mina izango du hizpide eta bigarrenak, ekainaren 2an, eguaztena, Anorexia eta Bulimia. Biak ere 17:30etan izango dira, udaletxean.

OHARRA

Datorren domekan, maiatzak 30, Felix Aseginolaza Araiztegiren aldeko meza emango da parrokian, 11:30etan. Felix, iazko azaroaren 28an hil zen.

EHren aurkezpena

Joan zen maiatzaren 2an aurkezpen ekitaldia egin zuen Antzuolako Euskal Herriarrok alderdiak. Herriko pilotalekuan atera zuten argazki ofiziala, baina ekitaldian, EHrekin bat egin nahi izan zuten antzuolar asko elkartu ziren. Hasiera batean argazkia kalean atera behar bazen ere, azkenean eguraldi txarragatik pilotalekuan egitea erabaki zuten arduradunek, une historiko hori jasotzeko. Gutxi gorabehera ehun bat lagunek eman nahi izan zioten euren laguntza EHri.



**LEKU-BERRI
MERENDEROA**

Janariak eta edariak

Tf. 943 76 60 94



**MUEBLES
IGEIA**

Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Deskarga erreka bideratzeko egitasmoa

Hamar urte daramatzagu erreka bideratzeko arazoa konpontzeke. Uholde- en arriskuak hor jarraitzen du, udaleko arduradunen arduragabekeriaren eta kal- tetuek ipinitako traben ondorioz.

Bi egitasmo daude eskuartearen: ba- ta, erreka Herriko plazaren atzealdetik estali gabe bideratzea. Bestea, plaza- tik, baina estali gabe, eta Herriko plaza- ren atzealdetik gainezkabidea egitea.

Erreka bideratzeko egitasmoaren eragin zuzena jasango dugunok geu gara eta arazoari irtenbidea emateko ondo- rengo kontzeptuei lehenetasuna eman be- harko litzaieke aipatzen diren ordenean:

- 1- Segurtasuna. Antzuolako bizilagun guztien segurtasunak beste ezerk baino lehenetasun handiagoa du, gure ustez.
- 2- Ingurugiroa. Ingurugiroaren gaineko azterlan bat egin behar da, ondorio kal- tegarriak ezagutzeko.
- 3- Egitasmoaren ondorio kaltegarriak: etxeak botatzea, espazioak galtzea...

Erreka plazaren atzealdetik eta es- tali gabe joateak plazako bizilagunen bi- zia arriskuan jartzen du. Eusko Jaurlari- tzak EAeko erreka eta errekatxoaren baz- terrak antolatzeke lurralde Plan Sektoria- lean onartutako ingurugiroari buruzko irizpideak ez dira bete. Eta egitasmoak bizilagun kaltetuei espazioa galtzea eka- rriko die. Ulergaitza da Udaleko alderdi politikoen, ingurugiroarekin hain ardura- tsuak direnek, onartutako egitasmoaren gaineko azterlan bat ez eskatu izana.

Kaltetuok lanean jarraituko dugu guztien segurtasuna zaintzeko. Esan nahi dugu egitasmo honen alde egingo dugula: erreka oraingo ibilbidea man- tentzea (plazatik estalita), ondo dragatu- ta eta gainezkabide estalia egitea, pla- zaren atzealdetik. Horixe da egitasmorik seguruena eta Antzuolako bizilagun guz- tien adostasuna duena.

Herriko Plazako Kaltetuak



Bizilagunen protesta bitxia

Honelakotxe itxura dauka Herriko plazak hilaren hasieratik. Izan ere, Herri- ko plazako bizilagunek kaleratu egin nahi izan dute erreka gainean duten iritzia, eta horretarako euren etxeetako balkoietatik "Errekak badu bere bidea.

Alibiaderoa estalita" dioten pankartak zintzilikatu dituzte. Aspaldikoa da bai erreka kontua, eta Udalak erabakia hartu duen arren, bizilagunek ez dute nahi erreka atzetik eta estali gabe egi- tea.

Ederra langintza erle artean



Erleak kendu behar izan zituen Eguzkitzako Marisabel Arregik pilotaleku ondoko zuhaitzetatik. Baserrian ere ba omen ditu, eta lasai asko zuhaitz gainera igo eta hortxe jardun zuen eskobarekin erleak astintzen. Dena dela, eta badaezpada ere, sekulako jantzia zuen soinean. Erleak ez dira ez bakean lagatzen zaituzten horie- takoak, euren sailetan sartuz gero, behintzat!

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

Euskal
sukaldaritza

Eguneko
menua



IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Birgaitzeak • Fatxadak
Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak
Kalegoi 9, 1a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

Gimnasia erritmikoko txapelketara

Aintzane Narbaezek Espainiako txapelketa jokatu du

Aintzane Narbaezek 13 urte ditu eta dagoeneko Gipuzkoako junior mailako txapelduna eta Euskal Herriko azpitxapelduna da gimnasia erritmikoan. Maiatzaren 15 eta 16an jokatu zuen Euskal Herriko txapelketan. 0,04 puntugatik ez zuen lehen saria eskuratu. Dena dela, Aintzane Zaragozara abiatuko da asteburu honetan Espainiako junior mailako banakako txapelketa jokatzera.



S

ei urterekin ekin zion Aintzaneke gimnasia erritmikoa egiteari. Orduan gustuko zuelako erabaki zuen kirol hau egitea, baina gustua baino gehiago dela erakutsi du

behin eta berriz. Izan ere, hamairu urterekin Espainiako gimnasia erritmikoko txapelketara joatea ez da egunero lortzen den zerbait.

Bergarako taldearekin hasi zen orain dela zazpi urte. Orduan ez zuen txapelketetan pentsatzen, baina aspaldi honetan derrigortua dago horrelakoetan kontzentratzera. Gaur egun, Eibarko Ipurua taldean ari da.

Lehenengo txapelketan bederatzi urte zituen eta harrezkero urtero saikatu da bere taldearekin Euskal Herriko txapelketarako. Orain, pausu handiagoa emango du Aintzaneke. Maiatzaren 28tik 30era bitartean, Zaragozan izango du



Aintzane, bigarrena eskumatik, erakustaldi batean.

Sokarekin jardungo du Aintzaneke, Zaragozan jokatu den junior mailako txapelketan

bere lehenengo banakako txapelketa. Aitortu digunez "ilusioa bai, baina ez da batere erraza izango. Oso maila handia izaten da horrelako txapelketetan. Bana nire lehenengo txapelketa izango da eta urduritasunari eustea ez da edozelako lana izango".

Aintzaneke beti taldeka hartu du parte eta orain bana aritzeak beldur piska bat ere ematen dio. Baina etxekoen laguntza dauka. Bere amak ahal duen guztietan laguntzen dio eta ulertu ere egiten du hamahiru urterekin ezin zaiola askorik eskatu. Dena dela argi dauka Aintzaneke zaila izango duela Zaragozan.

"Sekulako maila izaten da horrelakoetan. Lehiakortasun izugarria dago. Neska hauek asko zaindu behar dira. Pisua zaindu behar dute eta gureak esaterako denetik jaten du".

Espainiako txapelketarako txartela lortu ondoren, selekzioko kide izatea lortu nahi duen galdetean, Aintzaneke hori ezinezkoa dela aitortu digu, "hori dagoeneko lortua izan behar nuen. Orain berandu da. Dena dela, ahal dudan ondoren egiten saiatuko naiz".

Soka izango da Aintzaneke erabiliko duena, horixe baita berak gustuko duena eta "ondoan erabiltzen dudana". ■

AITZ-GARBI

taberna
jatetxea
 Pintxoak eta kazuelatxoak.
 Bazkariak eta afariak
 Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 51

DEKORAZIOA
ABAD
 PINTURAK
 ANTZUOLA
 PAPER PINTATUAK

Jose Gomez
 Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola
 943 76 60 19
 943 76 60 43

igor eta Txomin

Pintura orokorrean.
 Paper, tela, binilo, kortozko... estaldurak.
 Gotelesa, iztukuak eta
 bestelako imitazioak.

ANTZUOLA BERGARA
 ☎ 943 76 60 39 ☎ 943 76 19 98

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
 ANTZUOLA

Parranda egune aguuur...



Bitorianatxo joan da eta horrela-koetan esaten denez, gero eta gutxiago falta da hurrengo Pazkuetarako. Jaigiroa nagusi izan bada ere, albiste kezagarria jaso genuen martitzenean: R.L.C. 18 urteko gazte bergararrak istripu larria izan zuen goizeko bostak aldera Bideberriko txoznetan. Bere lagunekin zegoela, gaztea txurre-

ria ondotik erre kara jausi zen eta suhiltzaileak eta Erantzakoak etorri behar izan ziren gaztea ateratzeko. DYAKO ambulantiak Donostiako Aranzazu ospitalera eraman zuen zauritua eta bertako UVI unitatean ingesaturik dago. Badirudi bere egoerak hobera egin duela azken orduetan. Astebukae-

ran Ariznoa tabernan izan zen lanean R.L.C. gaztea. Jaietako egitarauari dagokionez, Bitorianatxo ez zuen grebarik egin ostira-lean eta euria izan arren jende asko bildu zen Plazan jaitsiera ikusteko. Eguakitzean bertan Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Aritzeta abesbatzak, Xamatz

GASTON Y DANIELA

Oihal batek aldatzen du dena

BERGARA

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

Afariak ematen ditugu



Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42



ARRAZKI LEHIAKETA

JUJUI CALLEJA



HERRI BAZKARIA



APU ZAHARRA TALDEAREN ABERIA



BAZKARIKO BI



PRESOAK GOGOAN

dantza taldeak eta Billabonako Eresargi ahots zurien abesbatzak "Titanic" filme ezaguneko soinu banda eskeini zuten Frontoian. James Horner konpositorearen musika hungarriari esker Titanic erraldoiaren hondoratzea gogoratzeko aukera izan zuten ikusleek. Xamatzekoek eskainitako Irlanda aldeko dantzak ikuskizuneko zatirik txalotuenetakoa izan zen.

PIKUPE GARAILE

Zapatuan, elkarten arteko sukaldaritza lehiaketan inoiz baino partaidetza handiagoa



izan zen. Guztira, 14 elkarte izan ziren lehiari eta ohitura denez partaideek bakailaoa pil-pilean prestatu behar izan zuten. Epaimahaiak Pikupe elkarterako Alberto Ugalderi eta Luis Mari Beistegiri eman zien lehen saria, bigarren tokian Sagarpe elkarterako Joxe Arrieta eta Ramon Gabilondo sailkatu ziren eta hirugarren postua Jaolatzako ordezkari-entzat izan zen. Jose Manuel Markiegik eta Rafa Olañetak ere trofeo orogarria eskuratu zuten. Goizean zehar hamabost urtez azpikoentzat plastika sariketa izan zen eta 71 gazte-

txok hartu zuten parte. Adinaren arabera, hiru kategoria bereiztu ziren eta kategoria bakoitzeko hamar lagun lanak nabarmendu zituen epaimahaiak. Zapatuan ere manifestazio jendetsua izan zen "Amnistia" lemapean eta astelehenean presoiei omenaldia eskaini zitzaizen Plazan.

Domekan, berriz, Euskadiko dantza sultoko txapelketaren kanporaketak eta finala jokatu ziren. Goizeko saioan 27 bikote aritu ziren eta 15 bikotek lortu zuten arratsaldeko finalerako txartela. Azkenean, Alex Torre eta Josune Fernandez nagusitu ziren eta jarraian Gorka Zabaleta eta Aiora Iturria azpeitiarrak eta Joseba Apaolaza eta Irati

KONDE



Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak. Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta 6 ☎ 76 13 23



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19



KALDARITZA LEHIAKETA



TXOMIN CASTRORI OMENALDIA



TXOZNETAN



MANIFESTAZIOA



KOADRILEN EGUNA



ASMATU EGIN ZUEN!



ARRAKAK



HORI ESTUALDIA!



DANTZA TXAPELKETA

MOISES AZPI
LAGUNTZAILEA
BERGARAKO



TXAN HANDIAREN
MAJIA

Imaz tolosarrak izan genituen sailkapenean. Trapu Zaharra taldearen "Aberia" kale antzerkiak ere ikusle ugari bildu zituen. Bestalde, afizionatuen mailako 64. edizioan Iker Kamaño Baque taldeko txirrindulariak lortu zuen garaipena. Irteeran ez zen herriko ordezkariarik izan eta ibilbidearen 128 kilometro bete ondoren Kamaño izan zen lehena helmugan.

KOADRILEN EGUNA

Txekorketan 1.100 ikusle izan ziren, baina toreroek ez zuten lan ona egiterik izan. Ikusle goak eskatuta, Javier Sanchezek eta Omar Guerrak belarri bana moztu zuten. Sanchez

salamancarra hobeto aritu zen Valrubio ganaduzalearen txekorren aurrean, baina arazo dezente izan zituen txekorra hiltzerako orduan. Entzierroek ere jende ugari bildu dute. Antolazailleek lana izan zuten martitzen goizean txekor batek markatutako ibilbidetik ihes egin ostean.

Martitzenean, koadrilen egunean, giro ezinhobea izan zen herriko kaleetan. Herri bazkarian 300 lagun inguru izan ziren eta bapo bazkaldu ondoren bildutakoek barre ugari egin zuten Txan Handia magoaren saioarekin. Arratsaldeko pilota partiduetan

Juantxo Kokak Pentekoste Saria eskeratu zuen, Rairi 22 eta 20ko emaitzarekin irabazi ondoren. Binakako finalean A-lustiza eta Zearra nagusitu ziren.

Udaltzaingoaren arabera, ez da aparteko nobedari izan aurtengo Pazkuetan. Badirudi beste urte batzuetan baino jende gutxiago ibili dela. Hala ere, bertan izan direnek ederki asko aprobetxatu dituzte jaiak. Orain, hurrengo urtekoen zain egon behar... **B**

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37



Artekalea 1, BERGARA.

Asteburuetan
etxez-etxeko zerbitzua

943 76 72 00



ORAIN
ZAPATU, DOMEKA ETA JAIEGUNETAN
eguerdietan ireki egiten dugu!

Entsaladak

Pastak

Postreak

Zukuak, garagardoa
eta freskagarriak

eta...

Pizza
aukerarik
zabalena!

EGUNEROKO
MENUA
ere badaukagu

PINTXOAK ETA TAPAK:
Ganbak plantxan
Kalamarrak
Txoko-txixiburduntzia



Miguel ALTUNA institutua

1999/2000 IKASTURTERAKO HEZKUNTZA-ESKAINNTZA

GOI MAILAKO ZIKLO FORMATIBOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena

ERDI MAILAKO

ZIKLO FORMATIBOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak

Aurrematrikula epea ZABALIK: ekainaren 1etik 9ra

Ohiko matrikula epea: uztailaren 1etik 9ra

HELBIDEA:

Miguel Altuna Institutua

Ibargarai 1

Tf. 943 76 24 91 / 943 76 38 40

**Norberaren gaitasun eta nahien
arabera egokitutako ibilbideak**

Behar diren baliabideekin

Bide eta ate guztiak

zabaltzen dituen ikasketak

Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

**Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara
eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu**

Futbitoko finalak domekan eta Ipintzako txapelketa martxan

Domeka arratsaldean jokatuko dira Labegaraietako futbito txapelketaren finalak. 17:00etan play offetako azkena jokatuko dute Bildurbarek Opel/Lam taldeak eta Errotagainek; 18:00etan, berriz, kopakoa jokatuko da Bar Canalejas eta Pagomendiren artean.

Partiduen ostean, sari banaketa egingo da kiroldegian bertan. Liga erregularrereko lau mailetak onenek, hau da, Azpeitxi jatetxeak, FAC-ek, Urrutxurtuk eta Amozkibar-ek sari bana jasoko dute. Finalak jokatuco dituzten lau taldeentzat ere sariak izango dira.

Labegaraietako futbito txapelketaren Antolaketa Batzordekoek jakinarazi di-



Ipintzako futbol txapelketako iazko irabazlea, Bildurbarek Opel/Lam.

gutenez, hurrengo astean play offetako eta kopako irabazleen arteko neurketa izango da. Nesken futbito txapelketari dagokionez,

amaitutzat eman dutela esan beharra dago, jokatzeko partidu bat geratu arren, Gu Geu talde geratu da lehen postuan.

IPINTZAKO FUTBOL TXAPELKETA HASI DA

Bestalde, eguaztenean hasi zen Ipintzako futbol txapelketa. Aurten, mutiletan, 23 talde arituko dira lehian, 4 multzotan banatuta. Sei taldeko 3 multzo eta bost taldeko multzo batean banatuko dira taldeak. Partiduak astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan jokatuco dira. Finala, berriz, uztailearen 23an.

Nesketan, berriz, gazte txoen zein nagusien mailan zazpi talde arituko dira baikoitzean. Beraz, 14 talde eman dute izena. Partiduak eguakitzetan jokatuco dituzte arratsaldeko 19:00etatik aurrera eta finala uztailearen 16an izango da.

ANDOITZ GALLASTEGI/ Waterpolo jokalaria

"Taldeak jokalaria gehiago behar du"

Waterpolo taldeko kidea da eta igerilari lanetan ere badabil. 11 urte daramatza Bergarako Igeri Elkartean eta dagoeneko 92. denboralditik ari da waterpolo taldean. Andoitz Bergarako kirolarien arteko sarituatariko bat izan zen joan zen egue-nean.

G. Zer dela eta sortu zenuten taldea?

E. Igerilarien ibilbidea motza da. Maila ona izan behar da aurrera jarraitzea nahi izanez gero. Igerian jarraitzeko asmoa genuen eta irtenbide bakarra waterpoloan aritzea zen.

G. Gipuzkoako lehen waterpolo taldea zarete.

E. Bai. Gipuzkoa mailan ez dauke talde asko. Bergarako sortu ondoren Hernanikoa eta beste batzuk etorri ziren. Garai hartan Euskadiko ligan bakarrik jokatzen genuen, talde hauek sortuz bat Gipuzkoan ere ari gara. Daramatzagun urteetan lan ona egin dugula esan daiteke.

Aurreko postuetan izan gara.

G. Jarraitzaile gutxi dituen kirola da waterpolo?

E. Zoritxarrez bai. Gainera jokatzen ditugun partiduak

Oñatin jokatzen ditugu Bergarako igerilekuak beharreko sakonera ez duelako. Horrek partiduko diru kopuru bat ordaintzea dakar. Waterpoloak jarraitzaile gutxi baditu Bergaran, Oñatin jokatzea beste eragozpen bat da. Entrenamendu saioak Bergaran egiten ditugu.

G. Zer behar da horrenbeste denbora uretan jarduteko?

E. Igerian gertatzen den bezala, besoak eta hankak landu behar dira. Horrela izanik uretan mantentzea ez da zaila.



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Urola

Preferente maila

Zapatua, 17:30 Agorrosin

Bergara-Urola

Lehen mailako jubenilak

Zapatua, 16:45 Ipintza

Bergara-Luberri

Bigarren mailako kadeteak

Domeka, 11:00 Ipintza

Txapeldunak, txapeldunak!

Federazioak txapeldunen kopa emango dio Bergararari

Bergarako futbol talde nagusiak hirugarren mailara igotzea lortu zuen joan zen asteburuan Aloñaren kontrako partidua 1-2 irabazi ostean. Mahoneroentzat 3. aldia izango da maila honetan. 1984-85 denboraldia izan zen bergararrentzat hirugarren mailan aritu ziren azkena.

BKE 1952. urtean sortu zen, Jose Maria Gallastegi presidente zela. 1958. urteko urtarrilaren 19an hirugarren mailara iritsi zen lehen-dabiziko aldiz. 1962-63 denboraldian, berriz, taldeak mailaz jeitsi zuen, 1979-80an hirugarrenera igotzea lortu zuen arte. Bost denboraldi hirugarrenean bete eta harrez gero Bergarako talde nagusia erregional eta preferente mailetan ibili da. BKEak 2002. urtean urrezko ezteiak beteko ditu. Zorteak lagunduta, ezteiak hirugarren mailan ospatzeko aukera egon daiteke.

DENBORALDIARI AGUR

Zapatuan, arratsaldeko 17:30etan jokatu den Urolaren kontrako partidua emango dio amaiera, horrenbeste lan egin eta gero emaitza onak ekarri dituen denboraldiari. Nieto



Azkoagainera joan ziren jarraitzaileei eskerrak emateko, Urolaren kontrako partiduko sarrera dohainik izango da.

entrenatzaileak adierazi digunez, "azken partidua izan arren irabazteko asmoz zapalduko dugu zelaia. 1997ko irailaren 13tik ez dugu etxean partidurik galdu eta helburua lortu dugun arren ez dugu galtzeko asmorik". Horrela eginez gero, bi urte izango lirateke etxean partidurik galdu gabe. Bestalde, hirugarren

mailara heltzeak eragina izan du jokariengan. "Gauza asko entzun da. Horrelako lorpenek ondorioak ekartzen baitituzte. Jokalariak eskaintzak jaso dituztela entzun da, baina orain gauza bero dago eta horrelako zurrumurruei berehala itzaltzen zaie garra. Ziur ez dakigu ezer". Nietok Gorka Zelaia proposatu zuen bere ordezko gisa Zuzendaritza Batzordean eta, badirudi, proposamena gero eta indar handiagoa hartzen dihoala. "Ez da ezer erabaki baina aukera gero eta zabalagoa dela esango nuke".

FESTA GIROA

Futbol federazioko ordezkariak Bergarako taldeari mailaz igotzeagatik dago-kion saria emango diote zapalduko partiduan eta aurrekoa ere dantzatuko da. Partiduko giroa alaitu nahian txaranga izango da eta amaieran, guztiak udal-txera zuzenduko dira, kalejiran, federazioak emandako koparekin. Ondoren jokalaria eta zuzendaritzakoek afora izango dute. Bestalde, Aloñaren kontrako partidura hurbildu ziren bergarar jarraitzaileei eskerrak eman nahian, Urolaren kontrako partiduko sarrera dohainik izango da.

Zorionak BERRIGARAREN partez ere talde osoari. **B**



Zelaia, Iñaki De Mujika kazetaria eta Nieto.

ezpeleta

Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Irala 3
Telefonoa:
943 76 48 26



IRRINTZI
kafetegia

Pentekostes txirrindulari lasterketa



Iker Kamaño, Urko Agirre eta Baque taldeko zuzendaria, Sabino Angoitia.

Jaixetan jokatu zen afizionatuen Pentekostes saria lasterketa Iker Kamaño Baque taldekoak irabazi zuen. Aurten ez zen Bergarakorik izan 128 km.ko ibilbidean. Mendiko saria Urko Agirrek (Baque) irabazi zuen. Talde mailari dagokionez, Baque izan genuen talderik onena. Lokatza taldeko jubencil eta bigarren urteko kadeteek Oñati eta Anoetako lasterketan izango dira asteburuan.

Eskola Kiroleko talde txapeldunak

Eguenean, eskola kirolean aritu diren haurrak finalak jokatu zituzten Ipintza futbol zelaian eta San Martin ikastolan. Eskubaloian, Aranzadi 15, M Lagundia A eta San Martin B izan ziren txapeldunak. Saskibaloian, Aranzadi 12, Aranzadi 4 eta Aranzadi 14; eta futbolekoan, Aranzadi 6, Elgeta eta Aranzadi 11.



1999ko kirol sarien banaketa



Joan zen eguenean aurtengo Kirol sarien banaketa egin zen Kultur Etxean. Bertan, Bergara mailan sariak izan ziren kirolariek, Victoriano Gallastegi alkatearen, Xabier Zabaleta kirol zinegotziaren eta Luis Abajo kultura zinegotziaren eskutik jaso zituzten sariak. Lurtzak eman zion amaiera ekitaldiari.

X. Olinpiada jaia

Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatuta, ekainaren 5ean, Deba Garaiko X. Eskolarteko Olinpiada jokatuko da Bergaran. 15:00etatik 19:00ak arte, bailarako ikastetxeetako OHOk 5. eta 6. mailako haurrek kirol jaian parte hartuko dute.

Xake asteburua

Asteburuan, xake txapelketak jokatuko dira. Besteak beste, Euskadiko selekzioak, Asturias eta Kantabriakoekin kontrajokatuko du domekan, 12:00etan.

Saskibaloiren entrenatzaileak

Deba Bailarako Euskera eta Kirol zerbitzuek eta Gipuzkoako saskibaloiren federakuntzak, saskibaloiko hasierako entrenatzaile titulu ikastaroa antolatu dute, 16 urtetik gorakoentzat. Uztailaren 1etik 15era izango da Arrasateko Musakola kiroldegian. Izenematea ekainaren 8a baino lehen Bergarako Kirol Zerbitzuan (943779167), 15.000 pezetan. Kirol zerbitzueta-ko bazkideentzat, 12.000.


Arantza
Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro 8 Tf.: 943 76 27 70 BERGARA



Irizar 2
☎ 943 76 14 95

JAUJA
KIROLAK

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Pisua salgai Huelvan, garajearekin. 943 76 40 25.

Artekalea. 943 76 02 24.

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Martoko. 943 76 37 21.

Alicanten, plaian. 10,5 milioi. 965 14 18 90.

Soraluze. Berriztua. Amueblatua. 943 75 23 98.

Bolu. 943 76 24 85.

Etxe berriztua Urteagan, 130 m². 943 76 08 79 (19:00etatik aurrera).

Masterreka. 943 76 47 13.

Antzuolan, beheko auzoan. 943 76 60 20.

Etxe berriztua Zubiaurren. 943 76 11 13.

Zubiaurre. 943 76 49 30 (gauetz).

EROSI

Bergaran etxea erosiko nuke. 617 072 595.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Deitu 943 76 10 39 telefonora.

ERRENTAN HARTZEKO

Nekazal lursaila (2.000 m²koa) alokairuan hartuko nuke. 943 76 26 79

4. LANA

ESKAINZAK

Etxe lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila eskaintzen da lanerako. 943 76 04 04.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxe lanak. 943 76 46 07.

Mutila txakurrak pasiatzera ateratzeko. 943 76 29 95.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Emakumeak etxeak garbitu edo zaharrak zaindu. 943 76 09 33.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Astebukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrak

Toki-Eder inguruan pisua erosiko genuke. 943 76 04 88 (gauetz).

ERRENTAN EMATEKO

Pisua alokairuan Simon Arrietan. 943 76 31 79.

Zarautz (abuztuan ez). Deitu 943 76 42 05 telefonora.

Apartamentua Laredon. 943 76 44 34.

Pisua alokairuan 2 edo 3 lagunendako Artzamen din. 943 76 06 25.

ERRENTAN HARTZEKO

Etxea alokatu nahi du. Deitu 943 76 58 37 telefonora.

2. GARAJEAK

SALDU

Koldo Eleizalde 36an. 943 76 36 34.

Garajea salgai Ibargarain. 943 15 15 81.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Martzial Agirren garaje

bikoitza. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Kruz Galastegin. 943 76 27 61.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

Zubiaurre. 943 76 23 53.

Ibargarai. 943 76 44 25.

ERRENTAN EMATEKO

Burdiñaten. 943 76 43 37.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke. 943 76 08 53.

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

Lokala San Pedron.

POL-POL
Taberna
☎ 943 76 07 78

SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK

RAC
VASCO NAVARRO

AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Maria Lili 6, behea
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54
Faxa: 943 76 41 54

IRAEGI
ASEGURUAK

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:
9.00-14.00 eta 16.00-20.00
Larunbatetan: 9.00-13.00

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24
Tf. 943 76 70 29

zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziazin dendan lan egin-go luke. 943 76 07 69.

Udan, umeak zaindu, etxeak garbitu edo tabernari lanak. 943 76 39 68 (Aitziber).

ESKAERAK

Senar-emazte edade-tuak zaintzeko pertsona behar da. 629 26 39 45.

Umeak zaindu eta etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 52 71.

Emakumea behar da abuztuko lehen hama-bostaldian elkarre bat garbitzeko. 639 47 25 84.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Klase partikularrak

ematen ditut. 943 76 17 57 (Rebeka).

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHOko klaseak. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Suzuki GSX 750 motorra salgai. Prezio ona. 610 20 82 78.

Citroen C25 furgoneta, bolumen handikoa. 943 76 28 93 (gauze).

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motorra salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesela. 617 20 66 29.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Karabana plegablea. 943 76 29 29.

GAC motorra (50 cc.). 943 76 49 30 (Igor).

Ehiztariendako Lada Niva 4x4. 680.000 pta. 943 73 15 57 (Beñat).

Suzuki GSX 750 F motorra prezio onean salgai. 610 20 82 78.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

7. ANIMALIAK

SALDU

Bi hilabate eta erdiko artzai txakurra. Arra. 943 78 34 79 (Felix).

OPARITU

Bi urteko kanario emea opari. 943 76 34 19.

Katakume grisak opari. 943 76 33 12.

8. DENETARIK

SALDU

Mendiko bizikleta. 943 76 10 80.

Bi eskopeta salgai, paralela bat eta 5 tirokoa. Sacabe. 943 76 37 25.

Logela-altzariak. Egoera onean. 943 76 06 78 (21:00etatik aurrera).

Altzari klasikoak salgai. 943 76 17 08.

Kitarra espainola. Berria. 943 76 59 94 (gauze).

Pisu elektronikoa (5 kg.) eta erlojuko pisu bat (25 kg.). 943 76 17 24.

Bigarren eskuko ordenagailuak. 943 76 28 68/12 52 (21:00-22:00).

Sukaldeko Fagor kanpaia. Prezio ona. 943 76 47 82.

Kotxe kapota, moisesa eta haurrentzako aukia. 943 76 19 09 (gauze).

GALDU

Urrezko pultsera. Sarituko da. 943 76 54 84.

Korbatako orratza Santa Marina inguruan, G.B. inzialak. 943 76 23 24.

Urrezko pultsera harri gorriduna. Sarituko da. 943 76 48 95.

AURKITU

Zilarrezko pultsera aurkitu nuen Barrenkalean. 943 76 15 36.

Betaurreko graduatuak topatu ditut Artzamedin. 943 76 50 74.



Langai
Euskal Lan Zerbitzua

| | |
|--|---|
| <p>TRAILER GIDARIA Plentzia. 17530/3</p> <p>INDUSTRI INJINERU TEKNIKOA Urola Kosta. 17622/6</p> <p>INDUSTRI DELINEATZAILEA Bilbo. 18397/5</p> <p>DENDARIA Getxo. 18398/2</p> <p>KALITATE TEKNIKARIA Durangaldea. 18526/4</p> <p>CNC TORNULARIAK, 2 Urretxu. 18886/3</p> <p>FRESATZAILEA Donostia. 19237/5</p> <p>O.P. MAKINA GIDARIA Bilbo. 19303/6</p> <p>DISEINU INJINERUA Bilbo. 19818/1</p> | <p>BANATZAILEAK, 2 Bilbo. 19579/5</p> <p>GIZA BALIABIDEETAKO ARDURADUNAK, 2 Durangaldea. 19604/2</p> <p>EKONOMI EDO ENPRESA IKASKETETAN LIZENTZIATUA Donostia. 19638/1</p> <p>ELEKTRIZISTA Deba Garaia. 19665/6</p> <p>DELINEATZAILEA Bilbo. 19811/3</p> <p>ACCES PROGRAMATZAILEA Bilbo. 19497/4</p> <p>FRESATZAILEA Donostia. 19849/1</p> <p>LH II GESTIO INFORMATIKA Zamudio. 19891/2</p> |
|--|---|

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

ARROZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK-PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38



Urteaga 9
Tf. 943 76 18 45



ARRANO

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

SANTOS

ESKAINTZA
Airtel mugikorra:
10.650
14" Radiola TB: **23.900**


Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA


Txahal, idi, txerri, bildots, utxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



BLAK, S.L.

A. Fleming 5
BERGARA
Mobilak:
907 44 50 38
907 46 57 38



Mariaren Lagundia Ikastola. Bergara

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK GIZARTE INTEGRAZIORAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

1999/2000 ikasturtea

Teknikari honek Gizarte Interbentzio sailean egingo du lan. Orokorrean edozein egitura edo erakunde publiko zein pribatutan jardun dezake, zeinak ekintza nagusitzat Giza Interbentzioa edukiko duten.

• **SARRERA BALDINTZAK:**

Ondorengo ikasketetatik bat eduki behar da bukatuta:
LOGSE Batxilergoa 2. maila, REM 2. zikloa, UBI, LH II.
20 urte edukita: Sarrerako proba bidez.

• **IRAUPENA:**

1.700 ordu bi ikasturte eta zortzi modulotan banatuta.

• **MODULOAK:**

1. maila (1.100 ordu) eta 2. maila (600 ordu).

IZENA EMATEKO ETA MATRIKULAZIORAKO EPEAK:

Aurre-matrikulazio epea: Ekainaren 1etik 9ra.

Matrikulazio epea: Uztailaren 1etik 9ra.

Idazkaritzako ordutegia:

09:30-13:00 eta 14:30-17:30.

Espoloia 1 Bergara

Telefonoak: 943 76 25 40 / 943 76 25 41

Faxa: 943 76 33 31

E-mail: marilagikastola@clientes.euskaltel.es

Mariaren Lagundia ikastola. EIB Euskal Ikastolen Batzako Kidea.

HIZKUNTZ IKASTAROAK ATZERRIAN

- Gazteendako ikastaroak
- Enpresa-munduko profesionalendako ikastaroak
- Etorkizuneko profesionalendako ikastaroak
- Hizkuntz irakasleendako ikastaroak

EAS - VELE



San Martzial 39, 1-C. 20005 Donostia
Tf. 943 42 80 60. Faxa: 943 42 14 79

INGELES - FRANTSESA - ALEMANIERA - ITALIERA



Literatur Lehiaketako sari banaketa zapatuan

Aurtengo edizioan 343 lan aurkeztu dira, iaz baino 100 gehiago

Bergarako Udaleko Euskara Batzordeak antolatzen duen literatur lehiaketako XIV. edizioko sariak banatuko dira zapatuan eguerdiko 12etan Zabalotegiko aretoan.

Aurten 343 lan aurkeztu dira lehiaketara, iaz baino 100 gehiago. Lan gehienak 9 eta 12 urte artekoak aurkeztu dituzte. Bost multzo edo talde osatu dira adinaren arabera. Hasi 7-8 urte dituztenetik eta 16 urtetik gorakoen arte. Lehen taldean, 7 eta 8 urtekoak, 42 lan aurkeztu dira; bigarrenen, 9 eta 10 urtekoak, 127; hirugarrenen, 11 eta 12 urte, 123; laugarrenen, 13, 14 eta 15 urte, 29 lan eta bosgarrenen, 16 urtetik gorakoak, 22.

Sari banaketa ekitaldia, esan bezala, bihar, zapatua, eguerdiko 12:00etan izango da Zabalotegiko aretoan. Ekitaldian, sarien banaketaren aurretik, herriko ikastetxeetako neska-mutikoen hainbat emanaldi eskainiko dituzte.



Literatur lehiaketako aurkezpen orria.

Bestalde, iazko edizioko sarituen lanak biltzen dituen liburua kalean da dagoeneko. 96 orrialdeko liburuskan irabazleen ipuinak eta haien argazkiak agertzen dira.

Aurtengo edizioko sarituei dagokieenez, hauek dira zapatuan saria jasoko dutenak: lehen taldean, Gorka Rodriguez ("Jorki"), Olatz Etxeberria ("Kafitesne") eta Idoia Larrañaga ("Maite eta izurde majikoa"). Bigarrenen, Ariana Arizabaleta ("Sukaldeari ere falta zaio"), Paulo Bikuña ("Gerrarik ez") eta Amaia Goienetxea ("Laguntasunaren beharra"). Hirugarren taldean, Garazi Olabarria ("Haizeen haserre"), Markel Larrañaga ("Zorioneko metamorfosia") eta Jone Fernandez ("Txoriak, zertarako?"). Laugarren taldean, Nuria Fernandez ("Maitasun ezina"), Oihana Hernandez ("Gaixotasun baten aurka") eta Lexeia Larrañaga ("Mahai berdea").

Bosgarren taldean, azkenik, Mikel Nin ("Bixamona"), Erika Artega ("Herizulo") eta Andoni Rodriguez ("Lucrecia eta Estatuaren segurtasun indarrak"). Bosgarren talde honetan, Junkal Arrutik eraman du ("Itxaropena") olerkiaren saria.

Bergara Hiria Argazki Lehiaketako erakusketa Kultur Etxean

Bergara Hiria XV. Argazki lehiaketako sari banaketa egingo da gaur, eguakitza, arratsaldeko 8etan Kultur Etxean. Lehiaketara aurkeztutako lan onenekin erakusketa zabaldu zen johan zen astean Kultur Etxean eta lanak domekara arte izango dira ikusgai.

Bi eratako argazkiak bereiztu ditu epai mahaiak: zuri-beltzekoak eta kolore-

takoak, eta bakoitzean lau sari banatu dira. Zuri-beltzean, honako hauek izan dira sarituak: Andres Indurain irundarrak eraman du lehen saria, Benito Cantero bergararrak bigarrena eta Juan Antonio Unzurrunzaga bergararrak hirugarrena. Bergarako onenaren saria, Jose Agustin Gurrutxagarentzat izan da. Koloretan, berriz, Javier Fernandezentzat izan

da lehen saria, Jose Agustin Gurrutxagarentzat bigarrena eta Javier de la Flor bilbotarrentzat hirugarrena. Bergarako onenarena, Jose Antonio Akizuk jaso du.

Sarituek, bi kategorietan, honako sari hauek jasoko dituzte: 25.000, 20.000, 15.000 eta 10.000 pezeta, lehen, bigarren eta hirugarrenentzako, eta Bergarako onenentzako.



Akizu herriko onenaren argazkia.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Erekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29

SUBIJA

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

PILI GISASOLA

Santiveri

Osasun eta Dietetikaren
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

denborapasa / LUMA

| | | | | | | | | | |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

Ezker eskuma

1. Libertatea. 2. Dotoretasun. 3. Ibai txikia. Infusio mota. 4. Dozena erdi. Aldendu aditzaren infinitiboa. 5. Eguberriaren aurreko gaua. Berrogeita hamr. Nitrogenoa. 6. Bokala. India. Friutu tropikala. 7. Isladak. Toki. 8. Istua. Aluminioa. Partitiboaren ezaugarria. 9. Kontsonantea. Iparraldean, iskanbila. 10. Kanpo, landa. Galdetzaille mota. Urrea.


Goitik behera

1. Ezin amestu daitekeena. 2. Arrantza tresna. Gar. 3. Helizearen itxurakoak. 4. Bete. Zintzoa. Lehena eta azkenekoa. 5. Hegazti tropikala. Karrika. 6. Sailak. Bizkaieraz, gehiegi. 7. Atzizki femeninoa. Bostehun. Alkoholen bukaeran. Fosforo. 8. Korrupzioa. 9. Neukan. Bete, zeharo ase. 10. Emakume izena. Nau.


Soluzioa

9. Nuen. Okitu. 10. Ana Nauka. 7. Sa. D. OI. P. 8. Ustelkaria. 5. Tukan. Kale. 6. Atalak. Lar. 3. Kiribilak. 4. Ase. Ona. Az. 1. Amesgaitza. 2. Sarea. Su. 1. Goitik behera 10. At. Zer. Au. 9. Z. Kalapita. 7. Islak. Leku. 8. Tua. Al. Rik. 5. Gabona. L. N. 6. Al. In. Kokoa. 3. Erreka. Tea. 4. Sei. Alden. 1. Askatasuna. 2. Maitasun. Ezker eskuma

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberebizbar



Zein kaletan dago ezkerreko iturria eta zein auzotan eskumakoa?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak Antzuolako **Arin** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Ufe Albarrantzat** izan da: Agirrebeña jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Uferi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Benta** Galde Debalde: **1A, 2-A, 3-C**

BONOFOTOA

Galde Debalde 1: _____ 2: _____ 3: _____

lzen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!



Kalebarren 7, ANTZUOLA
Tf. 943 78 71 12

Hamabi urte zittuala hasi zan Udal Musika Bandan klarinetia jotzen. Sakrifikaua izan arren, Bandan gustora dabilela diosku. Eskorpio zeinukoa, 21 urte dauzka eta Harreman Publikoetako ikasketak eitten dihardu Donostian.

Nondik dator Tzeitel izena?

"El violinista en el tejado" pelikulatik.

Amari gustau ein jakon izen hori.

Zergatik klarinetia?

Pianua ikastia nahi neban baina oso sufri-
dua ei da. Klarinetia asko gustatzen jat.

Entsaiuak ala kontziertuak?

Kontziertuak nahixago.

Joan zara sekula gaupasa eindra

kontziertu batera?

Bai.

Etxian zein musika entzuten dozu?

Gaur egungua: pop musika, rumbak...

Gustoko kantari bat?

Askok: Rosana, Alejandro Sanz,

Sergio Dalma...

Erositako azken CDA?

Luis Miguel-ena.

Diskotekazalea zara?

Lehen bai, oiñ ez.

Juergarako herri bat?

Benidorm.

Pazkuak ala San Martinak?

Ez dakit ba zer esan...

Zer izatia nahi ziñuan txikittan?

Albaitarixa eta konpositoria.

Ikasle ona zara?

Ez.

Zer behar da Harreman Publikoetan

lan eitteko?

Jendiarekin berba eitten jakitea.

Mutil batengan zertan fijatzen zara

lehenbizi?

Tzeitel Martin

Begixetan.

Gustoko jantzi bat?

Praka zabalak eta niki estua.

Kolore bat?

Urdiña.

Usain bat?

Perfume bat: Carolina Herrera, mutillena.

Dietia zaintzen dozu?

Bai.

Egunkarixan irakurtzen dozun

lehenengo gauzia?

Kirolak.

Kirolik gustokuena?

Futbola, Realekua naiz.

Jokalari bat?

Fisikoki Sa Pinto, baina onena, Gomez.

Zein postutan bukatuko du Realak?

Athletic-en aurretik espero... UEFAn
sartzia zailla ikusten dot.

Filme bat?

Askok. *Pretty woman* adibidez.

Aktore bat?

Andy Garcia.

Zenbat ordu eitten dozu lo?

Zazpi bat.

Mania bat?

Kaletik musikia entzuten juatia.

200 milioi irabazitta, ze ingo ziñuke?

Etxia erosi eta bidaiatu. **B**



Kizkur

Ileapaindegia

Estetika

Solariuma

LONBIDE ONETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA

Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



*Gozogintzan
aintzindari.*

Zubiaurreko lagunak, 1953

Esteban Inziarte fraile bergararrak, 1953ko udaberrian, Labegaraietako elizan bere lehendabiziko meza eman zuen eguneko argazkia da aste honetako. Egun hartan jende asko bildu zen Labegaraietan eta, hain egun berezia izanik, dotore jantzita joan ziren meztara orduko gazteak, argazkian ikus daitekeenez. Erretlatuan agertzen direnak Zubiaurreko koadrila bateko lagunak dira eta 21 urte izango zituzten orduan, gehienak 1932an jaiotakoak baitira.

Ez da batere erreza izan argazkia non ateratakoa den jakitea eta argazkiko protagonisten artean ere eztabaida handia izan da horren inguruan. Badi-rudi, mezaren ostean, Labegaraietako eskola txikiaren ondoan aterata dagoela. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Javier Oiarzabal "Adona", Javier Azkarate "Traku", Juanito Lopez "Guardagujia", Martin Alberdi "Batzoki" eta Iñaki Gardoki.

Makurtuta: Paulo Lopez "Guardagujia", Luis Alberdi "Pepitia" eta Juan Cruz Bengoa "Biosca".

Argazkia: Luis Alberdi



ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde Jauregian gaituzu, zatoz!

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25



IPINTZA institutua

1999/2000 ikasturtea

BATXILERGO MODALITATEAK
TEKNOLOGIKOA
GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK

Batxilergorako aurrematrikula epea
ekainaren 1etik 9ra bitartean, 9:00etatik 13:30era.

Ipintza institutua: Boni Laskurain 19. Tf: 943 76 31 42 / 43

Fotodepilazioa laserrarekin



**Informa
zaitez!**

Laser bidezko depilazio iraunkorra.

Eraginkorra, ziarra, delikatu.

Laser bidezko teknologiarik onena.

Depilazio iraunkorrerako sortua.

Bakarra. Azkarra. Delikatu. Eraginkorra.



Giartzu

Boni Laskurain 3
Telefona: 943 76 35 71

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko sukaldea edo bainua berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



Jakinan gauzak **erraztuko** dizkizugu. Obra ondo egiteko **beharezko guztia** daukazu.



6 URTEKO GARANTIA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.